


## LETONA

Se sitúa en una pequeña loma a los pies del alto Purcegan, que a su vez se halla dominado por el alto San Victor, en cuya cumbre se ubicó el famoso castillo de Záitegui de gran importancia en el desarrollo defensivo del medioevo, y dando vista a un barranco por el Sureste, por el que discurre la autovía Vitoria-Altube y el curso del río Zalla con uno de los famosos torcos, el torco de Zambolino, del que se abastece de agua corriente, este lugar de Letona.

La altitud media sobre el nivel del mar que alcanza el caserío de este lugar es de 597 metros.

## LETONA

Mendi-lepo batean kokatzen da, Purzegango gainaren oinetan, eta hau bere aldetik San Biktorko gainak azpian hartzen duela. Honen gailurrean kokatzen zen hain zuzen Zaitegiko gaztelua, hainbesteko garrantzia izan zuena Erdi Aroko defentsa-munduan. Hego-ekialdean, berriz, sakanune batera ematen du, Gasteiz-Altubeko autobideak eta Zalla ibaiak zeharkaturiko sakanera. Paraje honetantxe aurkitzen da lindo-zulorik famatuenetako bat, Zanbolinoko lindoa, eta Letonako herria hain zuzen zulo horretatixe hornitzen da ur korrontez.

Herri honetako etxeteriaren batezbesteko altitudea, itsasmailatik 597 metrotara aurkitzen da.

Panorámica de Letona con la ermita de San Víctor al fondo y en el alto de Záitegui.

Letonako ikusmira, hondoan -Zaitegiko gainean- San Biktor ermita duela.

Debido a su asentamiento sobre una loma y al declive que forman las laderas de la sierra de Arrato en su zona Levante, este pueblo de Letona se hace visible desde los aledaños de la capital de la provincia, Vitoria-Gasteiz.

Esan dugun bezala, mendi-lepo batean finkatzen delako eta Arrato Mendizerraren maldek Ekialdera eratzen duten malkarrarengatik, Letonako herri hau probintziako hiriburu den Vitoria-Gasteiz inguruetatik ikusteko moduan aurkitzen da.

Letona data desde muy antigüo, como lo corrobora el aparecer citado en el Cartulario del año 871 con el nombre de Letonnu. Ya en 1257 aparece con el nombre que actualmente ostenta.

Uso aspaldidanikoak dira Letonaren aztarnak, lehen ere aipatu dugun 871ko Kartularioak egiaztatzen digun bezala, hor ere agertzen bait da Letonnu izenarekin. Bestalde, jadanik 1257an ageri zaigu gaur egun daraman izen berarekin.

El descenso demográfico de esta localidad sigue el ritmo del resto de localidades de la zona. Según hemos recogido a finales del siglo XVIII eran 67 las personas que lo habitaban. Al principio de este siglo eran 44 los habitantes y en el censo de 1982 son 18 personas de hecho y 30 de derecho. Esta diferencia entre las personas de hecho y de derecho queda reflejada por el empadronamiento de varias personas que nativas de este lugar y no habitantes de forma regular, no han querido perder su ciudadanía.

En Letona, al igual que sucede en la gran mayoría de los pueblos que se hallan cerca de Vitoria-Gasteiz, que disponiendo de un acceso rápido, de amplias panorámicas, de una muy simple infraestructura, etc..., ha visto incrementar su partida edificatoria, acomodándose las nuevas construcciones en la parte Norte del lugar.

El caserío de Letona adquiere forma lineal con dirección NW-SE con el mayor grupo de casas, separadas unas de otras, en torno a la iglesia.

Al llegar al pueblo a través del ramal que parte de la autovía, arribamos a la zona Norte del mismo, en la que se levantan un grupo de segundas viviendas o viviendas recreo unifamiliares. Algunas de éstas son prefabricadas, de tipología anacrónica con la del lugar y alrededores.

En el solar que ocupa hoy día una de estas casas-recreo prefabricadas, a mano izquierda, fué ocupado por uno de los caseríos más interesantes del pueblo desde el punto de vista arquitectónico. Debido a su ubicación en terreno desigual, el alzado Sur poseía una planta más que el del Norte, encontrándose en este último los accesos al edificio. Es el alzado Sur el que más nos interesa. Sobre la planta baja, de mampostería, iba un entramado de madera visto, relleno de cerámico. El entramado lo constituyen una serie de postes que arrancando desde la carrera que descansa sobre la mampostería de la planta baja sube hasta la cubierta del edificio. En los entrepostes existen otras series de vigas horizontales colocadas a determinada distancia entre sí. Los huecos que se abren se delimitan por estos últimos y otros postes que unen a aquellos.

Herri honen beherapen demografikoari dagokionez, eskualde honetako beste herrien erritmo beretsuan doala esan beharko genuke. Bildu ditugun datuen arabera, 67 pertsona bizi ziren XVIII. mendearen azkenaldera. Mende honen hastapenetan, berriz, 44 ziren bertako biztanleak, eta 1982ko zentsuaren arabera 18 pertsona besterik ez gertatzez eta 30 zuzenbidez. Gertatzezko eta zuzenbidezko pertsonen arteko diferentzia hau zeragatik ematen da, alegia, bertan jaio izan den zenbait pertsona, nahiz eta ez bizi erregularki herri honetan, bertan erroldatzen delako, bere jatorrizko herritartasuna galdu nahi ez duelako edo.

Letonan, Vitoria-Gasteiz ondoan aurkitzen diren herri gehienekin gertatzen den bezala, irispide azkarra, ikusmira zabalak, oso azpiegitura sinplea, etab. dituelako, ugaldu egin dira etxeak, batez ere herriko lparraldean, eraikin berriak jasoz.

Letonako etxeteria lerroan antolatua dago, IM-HEko direkzioan, etxe-talderik handiena, bata besteengandik bananduta, elizaren inguruan kokatuz.

Autobidetik irtenez herrira eramaten duen errepidetik sartuz, lparraldera iristen gara, eta bertan bigarren etxebizitza edo opor-etxe familiabakarreko talde batekin topo egiten. Hauetako batzuk aurrefabrikatuak dira, bertako eta inguruetako tipologiarekin anakroniko direnak.

Ezkerretara aurkitzen den opor-etxe aurrefabrikatu hauetako batek gaur egun okupatzen duen orubea, herriko etxerik interesgarrienetako batek okupatzen zuen lehen, arkitekturaren ikuspuntutik begiratuta noski. Lurzoru desberdinean kokatzen zelako, Hegoaldeko hormak pisu bat gehiago zuen lparraldekoak baino, eta etxerako sarrerak azken honetan aurkitzen ziren. Hegoaldeko horma dugu, ordea, guri gehien intersatzen zaiguna. Behe-oina harlangaitzezkoa zuen, eta honen gainean ageriko zurezko bilbapen bat zihoan, zeramikaz beteta. Bilbapena, bere aldetik, behe-oineko harlangaitzen gaineko habetzanetan bermatuz etxearen teilaturaino igotzen diren zutoin-sail bat doa, horizontalki ipinita, eta bata besteengandik halako distantzia batera. Bertan irekitzen diren baoak, azken hauek eta berorien artean zutik ipinitako beste batzuek mugatzen dituzte.



Desaparecido caserío n.º 9 con detalles de su entramado y actual chalet prefabricado en su lugar.

Jadanik desagertua den 9 zk. baserria, bere bilbapenaren xehetasunekin, eta gaur egun berorren lekuan eraiki den txalet aurrefabrikatua.

El cerramiento de este entramado es a base de un aparejo a media asta con ladrillos a soga separadas las hiladas por gruesa faja de mortero o lechada. A reseñar la forma de los huecos que se abren en el desván formando arquería con distinto tamaño de los mismos.

Al N-W del lugar y enmarcado el arranque del camino que lleva a la hermita de San Victor, se hallan los edificios catalogados con los números 1 y 2. El nº 1 presenta su fachada orientada al Este, teniendo sus huecos una disposición simétrica muy acorde con las técnicas constructivas de su época de construcción, allí por la última década del siglo pasado y que se levantó sobre otro que sufrió el castigo del fuego. En su costado derecho se encuentra añadido cuyo nivel del piso se halla a nivel más bajo que el edificio principal con el propósito de salvar el abuhardillado de su techo.

Bilbapen honen itxiera luzekako aparailuz edo luzekako adreiluz egina dago, adreilu hauen ilara-tarteak mortero edo karesnezko geruza lodiekin betez. Azpimarratzekoa da, bestalde, ganbara aldean irekitzen diren arkuen forma, tamaina desberdinetako arkuzko arkuteria bat eratzen bait dute.

Herriaren I-Mera eta San Biktor ermitara daraman bidearen abiapuntua azpatuz, 1 eta 2 zenbakiekin katalogaturiko etxeak aurkitzen dira. 1 zk.ak Ekialderantz orientatua dauka bere fatxada eta bere baoak simetrikoki banatuak aurkezten ditu, jasoa izan zeneko erakuntz teknikekin oso ados, zeren eta iragan mendearen azken hamarkada aldera eraikia izan bit zen berori, suaren jipoia jasandako beste baten gainean. Bere eskuin alboan eranskin bat darama, bere pisuaren maila eraikin nagusiarena baino beherago daramala, bere teilatuko txapitula zabaltzeko intentzioarekin inondik ere.

Aseado y atractivo aspecto observa la casa n.º 1.

Iglesia parroquial.

1 zk. etxeak eskaintzen duen itxura txukun eta erakarlea.

Parroki eliza.

El edificio nº 2, al otro lado del arranque del camino, con dedicaciones complementarias o auxiliares, es de moderna construcción.

A continuación llegamos al grupo o núcleo central en el que se encuentra la iglesia parroquial con advocación a San Andrés. Antes de la exposición muy somera del templo diremos que, así como en la mayoría de los pueblos, la Iglesia se encuentra en la zona más alta y más al Sur, en éste se ubica en la zona alta del lugar, pero no al Sur sino en el centro. Consta de una única nave a cuyos pies se levanta la torre de planta cuadrada, en cuyo cuerpo superior se halla el campanario. Adosada a su alzado Sur se halla la casa-concejo y el rústico pórtico que da acceso al templo.

2 zk.arekin katalogatu dugun eraikina, berriz, bidearen abiapuntuko bestekaldean dago eta, eranskin osagarri edo laguntzaileekin, eraikuntza modernoagokoa da.

Jarraian, San Andresen izeneko parroki eliza kokatzen deneko talde edo gune zentralera iristen gara. Tenpluaren beraren deskribapen oso labur bat egin aurretik zera esan behar dugu, alegia, herri gehienetan eliza zonarik altu eta Hegoaldekoenean aurkitzen den bitartean, hemen herriko zona altuan kokatzen dela bai, baina ez Hegoaldekoenean, erdialdean baizik. Nabe bakarrak osatua dago eta honen oinetatik dorre karratu bat altxatzen da, bere gorputz gorenean kanpandorrea daramala. Elizaren Hegoaldeko hormari erantsita, berriz, Kontzeju-etxea eta tenplurako sarrera egiten duen arkupe oies bat aurkitzen dira.

Caserío n.° 8. Anterior aspecto.
Actual apariencia que le ha restado personalidad.
Casa cural. En total estado de abandono.

8 zk. baserria. Lehenagoko itxura.
Gaur egungo tankera, nortasuna galduta.
Apezetxea. Erabateko abandonu-egoeran.

El caserío n.° 8, detrás de la iglesia, lo conforman el edificio pincipal, la cabaña retranqueada, perpendicular a uno de sus laterales, con la era delante, y unas sencillas construcciones anexas a la fachada principal en la que se ubica la dependencia que contenía al horno de pan. Dos son los accesos, uno a las cuadras y otro a la vivienda. En la planta baja se sitúa la cocina. El repintado dado al revoco de su fachada, en forma de piezas sillares, no la acompaña ni es el adecuado a la tipología caseril de la zona.

La casa catalogada con el n.° 11 responde a la "Casa Cural" y según se lee en dintel de la puerta de acceso fué construida en el año 1828, aunque nosotros no estamos de acuerdo en dicha fecha por no responder sus características constructivas a la época edificatoria de principios del siglo pasado. Posiblemente, el dintel proceda de algún resto de alguna otra casa o bien la casa se quemó y posteriormente fué levantada con técnicas constructivas más modernas. La casa se halla cercada por muro alto de mampostería, en mal estado.

8 zk. baserria elizaren atzekaldean aurkitzen da eta eraikin nagusiak, bere albo-horma bati perpendikularki doakion etxorde atzeratuak -aurrean larraina duela- eta fatxada nagusiari erantsitako beste eraikin arras sinple batzuek eratua dago. Bi sarrera ditu, ikuiluetarakoa bata eta etxe bizitzarakoa bestea. Behe-oinean sukaldea aurkitzen da. Fatxadako entokadurari eman zaion gainpinturak, harlanduen itxuran alegia, ez du batere faboratzen eta ez doakio gainera eskualde honetako baserri-tipologiari.

11 zk.arekin katalogatutako etxea "Apaizetxea"ri dagokio eta sarrerako atalburuan irakur daitekeenez, 1826. urtean eraikia izan zen; baina gu ez gaude batere ados data horrekin, ez diete eta erantzuten bere eraikuntzako karakteristikek iragan mendearen hastapenetako eraikuntzaldikoei. Seguru asko, beste etxeren baten hondakinetatik dator atalburu hau, edota etxea erre egin zen eta geroago eraikia izan, eraikuntz teknika modernoagoekin. Etxe hau, bestalde, nahiko egoera txarrean aurkitzen den harlangaitzezko murru altu batek inguratua dago.

Palacio torre de los Letonas-Hurtado de Mendoza.
Letona/Hurtado de Mendozatarren jauregi dorretxea.

El caserío n.º 4, de notable volumen, está conformado por tres cuerpos bien diferenciados, tanto por su función como por sus alturas y tipología constructiva. Estos tres cuerpos son: una torre, la casa o edificio palacio anexa y la cabaña que recientemente ha sido sustituida por pabellón, sustituyendose la estructura de madera por la estructura de hierro; así como la teja de su cubierta por uralita.

A la torre se le conoce como la torre de los Letonas-Hurtados de Mendoza. Micaela Portilla dice: "No es una torre medieval, aunque trata de conservar los elementos defensivos característicos de las torres señoriales del medievo".

4 zk.arekin katalogaturiko baserria, bolumen handi samarrekoa izaki, batak besteengadik bai beren funtzioarengatik eta bai beren altura eta eraikuntzako tipologiarengatik ongi bereizitako gorputzez osatua dago. Hauexek dira hiru gorputz horiek: dorre bat, jauregi-etxe edo eraikina eta oraindik orain pabiloi batez ordeztua izan den etxordea, honen zurezko egitura burdinazko beste batez ordeztuz, eta orobat teilaren ordez uralita emanez.

Dorre hau, Letona-Hurtado de Mendozatarren dorrea bezala ezagutzen da. Hauxe dio Micaela Portillak: "Ez da Erdi Aroko dorre bat, nahiz eta Erdio Aroko jauretxe-dorreen defentsako elementuak gordetzen saiatzen den".



Torre-Palacio de Letona.
Detalle de escudos y cornisa.
Detalle de balaustrada.
Detalle de la parte alta de la torre.

Letonako jauregi/dorrea.
Armarrien eta erlaizaren xehetasuna.
Kalostraren xehetasuna.
Dorrearen goiko partearen xehetasuna.

La torre, de base rectangular, está rematada por cuatro almenas en sus vértices. El aparejo que forma el coronamiento de sus alzados lleva la siguiente composición, repetida dos veces: ladrillo cerámico a soga, argamasa, hilada de ladrillo en ángulo, argamasa, ladrillo a soga y teja. Esta composición se amolda a elementales aparejos de orígenes mudéjares.

La torre consta de planta baja y dos pisos. La planta baja tiene acceso directo por su costado Oeste. A los pisos se accede desde la casa-palacio. La fachada noble de la torre se orienta al Sur y en ella se abren numerosos huecos alguno de los cuales se halla tapiado. En el piso alto luce dos escudos; el de la izquierda representa a las armas de los López de Letona el de la derecha las armas de los Zárates y Hurtado de Mendoza.

Angeluzuzeneko oinplanoa du dorre honek eta lau almenaz errematatua dago bere erpinetan. Bere hormen koroamendua eratzen duen tolesturak honako konposizio hauxe darama, bi aldiz errepikatuta: luzekako adreilu zeramikoa, kareorea, angelukako adreilu-ilara, kareorea, luzekako adreilua eta teila. Konposizio hau, ezpairik gabe, tolestura mudejar sinpleenen antzera eratua dago.

Dorre hau, bestalde, behe-oinaz eta bi pisuz osatua dago. Behe-oinera, Mendebaldeko albotik sartzen da zuzenean. Pisuetara berriz, jauretxetik sartzen da. Dorrearen fatxada nagusiak Hegoalderantz ematen du eta bertan bao ugari agertzen dira, berorietako bat baino gehiago takatua badago ere. Goiko pisuan bi armarri erakusten dizkigu; ezkerrekoak Lopez de Letonatarren armak errepresentatzen ditu eta eskuinekoak Zarate eta Hurtado de Mendozatarren armak.

El primer piso lo ocupa una amplia dependencia con entrada desde el palacio, de aquella, a través de un bello y amplio paso se accedía a la alcoba, ésta situada en terreno del palacio.

Micaela Portilla encuadra su construcción en la ya avanzada segunda mitad del siglo XVI, cuando eran señores del solar Don Juan López de Letona y Doña Catalina Ruiz Hurtado de Mendoza, o en vida de sus hijos portadores por ambos progenitores de los blasones citados más arriba.

El segundo piso de la torre lo ocupa otra amplia dependencia con paso a través del camarote del palacio.

El palacio adosado a la torre por el lienzo Norte de ésta, es de planta rectangular, con el lado menor de la anchura de la torre. La entrada principal del palacio se sitúa en el alzado Poniente, es adintelado con pequeñas ménsulas de coronamiento de sus jambas. La puerta de madera de roble, con bellos clavos forjados, se halla oculta por capa de tablas debido a su deterioro. Del acceso antiguo del palacio se conserva columna toscana que sostiene sencillo porche de protección al acceso principal de la casa.

Una vez atravesado el umbral nos encontramos con un gran portal que atraviesa de Oeste a Este el edificio. A mano izquierda se halla la puerta de acceso a las cuadras que ocupan junto al pajar, la zona Norte del palacio. Enfrente, se halla la bella, amplia y singular escalera que comunica con el piso. Así mismo, se halla el acceso a la era. A la derecha se encuentra la cocina, recocina y otras dependencias auxiliares. Hoy día, el portal ha visto reducirse su superficie, por la construcción en él, de un cuarto de baño.

El portal se halla coronado por la viguería y entarimado del desván. En el piso se halla bella y bien trabajada balaustrada que sirve de distribuidor de dependencias.

Lehen pisura, esan dugun bezala, jauregitik sartzen da eta barrundegi zabal batek okupatua dago lehenik, eta hemendik, pasadizo eder eta zabal batean barrena, jauregiaren terrenoetan kokatzen zen alkobara pasatzen zen.

Micaela Portillak 16.mendearen bigarren erdia aurrera zela egindakotzat jatzen du honen eraikiera, bertako nagusi Don Juan Lopez de Letona eta Doña Catalina Ruiz Hurtado de Mendoza zirela, edo hauen umeen bizitzan, bigurasoen aldetik hauek bait ziren garago aipatu armarriaren erode.

Dorrearen bigarren pisura, berriz, jauregiko ganbaratik sartzen da eta barrundegi zabal batek okupatua dago hau ere.

Dorreari Iparraldeko hormari erantsita dagoen jauregia, oinplano angeluzuzenekoa da, alderik estuena dorrearen zabalera berekoa duela. Jauregirako sarrera nagusia, bestalde, Mendebaldeko horman aurkitzen da eta ate-zangoa koroapen bezala doazen mentsula txiki batzuez dinteldua dago. Haritzezko atea darama, iltze forjatu ederrez hornitua, baina ohol batzuez estalia aurkitzen da gaur egun, hondatu antxa dagoelako. Jauregiaren aintzinako sarreratik zutabe toskanar bat kontserbatzen da oraindik ere, etxearen sarrera nagusian, aterpe sinple bati eusten diola.

Behin atalasetik iraganez gero, eraikina Mendebaldetik Ekialdera zeharkatzen duen ataurre handi batekin aurkitzen gara. Ezkerretara ikuiluetara ematen duen atea dakusagu, hauek, lastategiarekin batera, jauregiaren Iparraldeko zona okupatzen dute eta. Aurrez aurre berriz, pisuarekin komunikatzen duen eskailera eder, zabal eta bereziarekin topo egiten dugu. Era berean, hemen aurkitzen da larrainerako atea ere. Eskuinetara, berriz, sukalde, sukaldeondo eta beste barrundegi lagungarriak aurkitzen ditugu. Gaur egun zerbait txikiagotua dago ataurre hau bertan bainugela bat egin delako.

Ataurre honen goiari dagokionez, gapirioez eta ganbarako solairuaz osatua dago. Pisua, bere aldetik, barrundegien banatzailetza egiten duen kalostra eder eta ongi landutako batez hornitua dago.





Palacio anexo a la torre.
La entrada principal al palacio se cubre con cobertizo a dos aguas.
Detalle de la escalera y balaustrada.
Distribuidor encima del portal.

Dorreari erantsitako jauregia.
Jauregirako sarrera nagusia bi isurialdeko aterpeaz estalia dago.
Eskailera eta kalostraren xehetasuna.
Banatzailea ataurrearen gainean.

La fachada Levante del palacio, aunque secundaria, se halla en mejor estado por ser de mampostería al igual que la torre, mientras que la Poniente, la principal, lleva entramado de madera relleno de cerámico con el revoque deteriorado.

Para finalizar con esta torre-palacio, diremos que es un verdadero desconsuelo el desvalijamiento a que fueron sometidos todos aquellos huecos que poseían parapetos o antepechos de hierro forjado que daban clase, estilo y ralea a aquellos.

Jauregiaren Ekialdeko fatxada, bigarren mailakoa izanda ere, hobeto kontsebatua aurkitzen da harlangaitzezkoa delako, dorrea bezalaxe bestalde; Mendebaldekoak, aldiz, fatxada nagusia den arren, zeramikaz betetako zurezko bilbapena darama, eta nahiko hondatua bere entokadura.

Jauretxe honekin amaitzeko, esan dezagun, ze benetan tamalgarria izan dela etxe honetako baoek jasan duten lapurreta, zeren eta klasea, estiloa eta kasta ematen zieten burdina forjatuzko eskubanda guztiak kendu bait zaizkie.

Bonita casona apodada «el Palacio».

«Jauregia» izeneko etxegaitz polita.

El caserío nº 5, último de los edificios del núcleo en torno a la iglesia, se le conoce con el nombre de "El Palacio". Se trata de un voluminoso caserón, de tipología palacio rural, con cubierta a cuatro aguas. Sus alzados son de mampostería revocada y encalada, dejando vistos los recercados de huecos, así como esquinales.

La fachada principal, al mediodía, se halla fuertemente trepanada con tamaño y tipología de huecos, distinta en cada planta.

La casa dispone de amplio terreno en su entorno, estando delimitado por muros de mampuestos recogidos en seco. Dentro del terreno perteneciente a la casa se halla el juego de bolos cubierto, en estado ruinoso.

5 zk.a daraman baserria, elizaren inguruko etxe-taldeko azkenetakoa, "Jauregia" izenez ezagutzen da. Egia esan, jauregi-estiloko etxetzar boluminoso bat da, lau isuriko teilatuarekin. Bere harlangaitzezko hormak entokatu eta kareztatuak dauzka, baoen azpadurak eta etxekantoiak bistan dituela.

Fatxada nagusia, Hegoaldera ematen duena, bortizki zulatua aurkitzen da tamaina eta tipologia desberdinetako baoekin oin bakoitzean.

Etxeak bere inguruan lur zabalak ditu, legorrean bildutako eskuz ezarritako harriz hesiturik. Etxearen mugapeko lurretan, bestalde, bolatoki estali bat ere ikus daiteke, aurri-zorian.

Portón de entrada a la finca de «el Palacio».
Singularísimo apeo de cobertizo.
Caserío n.º 7. Aspecto anterior.

«Jauregia» finkaren sarrerako atetzarra.
Aterpearen eskorapen guztiz berezia.
7 zk. baserria. Lehenagoko itxura.

Los caseríos números 6 y 7 se sitúan al Sur del lugar y al borde de la loma donde se asienta el lugar de Letona y algo alejado del núcleo central en torno al templo parroquial.

El caserío n.º 7 se levantó allá por el año 1791, según reza en la inscripción del dintel de su acceso, acompañado de cruz y panelas, una a cada lado.

A lo largo de los años transcurridos desde su construcción, ha sufrido diversas reformas. La última, que se está llevando en la actualidad, es la de mayor embergadura al menos interiormente, por el cambio de función ha que se ha sometido. De ser una unidad agropecuaria ha pasado a ser una segunda vivienda o vivienda-recreo, utilizada temporalmente. Aunque actualmente no lo posee por haber sido derruido por un vendaval, disponía de un portegado protegiendo la entrada al añadido, cuya sustentación entra dentro de lo curioso y popular.

6 eta 7 zk.dun baserriak herritik Hegoaldera aurkitzen dira, Letonako herria kokatzen deneko mendi-lepoaren ertzean alegia, eta parroki elizaren inguruko etxe-talde zentraletik zerbait urrunduak.

7 zk. baserria han 1791. urtealdera eraikia da, sarrerako atalburuan ikus daitekeen inskripzioak dioen bezala; data hau, alde banatara panel bat daraman gurutze batez lagundua dago.

Eraiki zenetik iragandako urteetan zehar hainbat berritze-lan jasan du etxe honek. Azkenekoa, gaur egun egiten ari zaiona, da, barrualdetik behintzat, orain artekoan egin zaion handiena, barrundegi desberdinei eman zaizkien funtzio-aldaketen ondorioz. Nekazal eta abelazkuntzako unitate bat izatetik, noizbehinka bigarren egoitza edo opor-etxe bezala erabilia izatera pasa bait da. Gaur egun ez duen arren -haize-bolada batek bota ziolako-, aterpe bat zeraman eranskinaren sarrera babestuz. Eranskin honi eusteko sistema, bestalde, nahiko bitxia eta herrikoia da.




Caserío n.º 7. Aspecto actual.
Caserío n.º 6. Aspecto general y croquis de la agrupación caseril.

7 zk. baserria. Gaur egungo itxura.
6 zk. baserria. Itxura orokorra eta etxe-taldearen krokisa.

El último caserío del lugar lo hemos catalogado con el n.º 6, y corresponde a una unidad agropecuaria en la que cada uno de los cuerpos que lo forman tienen distintas funciones.

La casa-vivienda data de hace unos 100 años y se levantó sobre otra que sufrió el azote del fuego.

El piso es ocupado por distintas habitaciones cuyos accesos dan a la sala que actúa, por tanto, de distribuidor de dependencias. El suelo de la habitación que se halla en el añadido se halla a nivel inferior que las correspondientes de la casa principal con el fin de salvar el abuhardillado de su techo.

Herri honetako azken baserria 6 zk.arekin katalogatu dugu, eta bera osatzen duten gorputz desberdinak funtzio diferenteak betetzen dituzten nekazal eta abelazkuntzako unitate bati dagozkio.

Etxebizitza bera duela 100en bat urtekoa da eta sutearen jipoia jesandako beste baten gainean eraikia dago.

Pisuari degokionez, beren ateek salara ematen duten gela desberdinez okupatua dago, eta beraz, barrundegien banatzaile bezala jokatzen du salak. Eranskinean aurkitzen den gelaren zorua, berriz, eraikin nagusiko gelei dagokiena baino beherago aurkitzen da, bere teilatuko txapitula salbatzearren.